

# txinpart

hautzaro ikastolako aldizkaria 2004 Ekaina • 29. zenbakia





6.mailako ikasleak lan sektoreko lanketa landu ondoren, Leaburuko MAHALA baserriko antolamendu autonomia ikusteko aukera izan genuen.



## AURKIBIDEA

|                              |    |
|------------------------------|----|
| HAURTZARO INFORMATZEN .....  | 3  |
| HATZAK BETE LAN.....         | 8  |
| GURASOOK JAKIN DEZAGUN ..... | 18 |
| GU ERE KAZETARI .....        | 19 |
| NAHASTE BORRASTE .....       | 24 |





## ONGI ETORRI DONAPALEUTARRAK!

Ikasturtean zehar 5 mailakook Donapaleuko Amikuze ikastolako 4 eta 5. mailakoekin eskutitzen bitartez harremanak izan ditugu. Horrela, gure ohiturak, euskalkiak, notiziak, gonbiteak, ... trukatu ditugu. Era berean, ikasturte bukaerako topaketa egunak (Ekainaren 4a Oiartzunen eta ekainaren 11a Donapaleun) girotu eta antolatu ditugu.

Elkar ezagutu eta harremanak izateaz gain, bakoitzaren herria, ikastola, joko, kantu eta ohiturak ezagutu ditugu.

### GU BIZIKI UNTSA GIRA ETA ZUEN GUTUNAREN BEHA GIRA



Aurten ere irakasle, guraso eta ikasle-en arteko giro ezin hobean, Ikastola eguna ospatu genuen Ekainaren 6an.

Herri osora zabalduratu genuen ekitaldia: Ikastolan ekintza estraeskolarrak, ikuskizunak, agurra eta bazkaria ospatu genituen.

Kontsejupe plazan ere jolasak izan genituen herriko haur guztientzat eta ondoren Landetxe plazan udal akordioaren aldeko ekitaldia burutu zen.

Hemendik eskerrik beroenak laguntzaile eta parte hartzaile guztiei.





## 3. Hiruhilabeteko irteerak

| MAILA             | NOIZ                | NORA                         | HELBURUA                                           |
|-------------------|---------------------|------------------------------|----------------------------------------------------|
| <b>H.H. ETAPA</b> |                     |                              |                                                    |
| H.H.1             | Apirilak 21         | Elizalde auzora              | Herriko eraikinak ikustera eta bide heziketa landu |
| H.H.1             | Maiatzak 18         | Bidegorrira                  | Baratzak Eta Negutegiak Ikusi                      |
| H.H.1             | Maiatzak 28         | Zumaiara                     | Zuloagaren Museoa Ikusi                            |
| H.H.1             | Ekainak 10          | Momotegi baserria            | Animali,erreka..... eta elkarrekin ondo pasa       |
| H.H.1             | Ekainak 15          | Goiko-Etxe baserria          | Animaliak ikusi                                    |
| H.H.2             | Apirilaren 22an     | Mendibilko Txarara           | Loreak bildu, lehortzen jartzeko                   |
| H.H.2             | Maiatzaren 17an     | Donostiako Antzoki Zaharrera | "Prop eta Berta" pelikula ikusi                    |
| H.H.2             | Maiatzaren 18an     | Okindegira                   | Ogia nola egiten den ikusi                         |
| H.H.2             | Maiatza-Ekainan     | Igerilekura                  | Uretan gozatu                                      |
| H.H.2             | Maiatzaren 28an     | Udaletxera                   | Musika tresnak ezagutzea eta emanaldi bat entzun   |
| H.H.2             | Ekainaren 8an       | Hondarribiara                | Hondartzan gozatzea eta egun pasa egin             |
| H.H.3             | Maiatzak 19         | Donostiara                   | Filma bat ikusi                                    |
| H.H.3             | Maiatzak 21         | Ergoinera                    | Musikako tresnak ezagutu                           |
| H.H.3             | Maiatzak 25         | Oiarbide familiaren etxera   | Erleen bizimodua ezagutu                           |
| H.H.3             | Maiatzak 28         | Udaletxera                   | Musika emanaldia entzun                            |
| H.H.3             | Ekainak 10/11       | Larraulera                   | Ingurua ezagutu, gozatu..., autonomia landu...     |
| <b>L.H. ETAPA</b> |                     |                              |                                                    |
| 1. Maila          | Maiatzaren 4ean     | Pagoetako Parke Naturalera   | Natura gaiaren lanketa                             |
| 1. Maila          | Ekainaren 9tik 11ra | Beizamara                    | Ikasturteko ibilaldia                              |
| 2. Maila          | Maiatzaren 19an     | Urkabera                     | Natura landu                                       |
| 2. Maila          | Ekainaren 9tik 11ra | Lesakara                     | Ikasturteko ibilaldia                              |
| 4. Maila          | Apirilaren 22an     | Zinemara                     | Zinea euskaraz kanpaina                            |
| 4. Maila          | Apirilaren 30ean    | Donostiara                   | Inguruneko gaiaren landu                           |
| 4. Maila          | Maiatzaren 28an     | Arantzazu – Oñati            | Inguruneko gaiaren landu                           |





| MAILA             | NOIZ                 | NORA                                                                              | HELBURUA                                           |
|-------------------|----------------------|-----------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------|
| <b>L.H. ETAPA</b> |                      |                                                                                   |                                                    |
| 3.-4. Maila       | Ekainaren 11ean      | Urkabera                                                                          | "Euskaraz Bizi" kanpaina                           |
| 5. Maila          | Hiruhilabetea Zehar  | Mendibilko txarara                                                                | Ingurunea: ekosistema                              |
| 6. Maila          | Maiatzaren 11an      | Lezo eta fanderia                                                                 | Bailarako bote luzeko txapelketa                   |
| 6. Maila          | Maiatzaren 12an      | San Markoseko zabortegia                                                          | Murritz - Berrerabili - Birziklatu                 |
| 6. Maila          | Maiatzaren 20an      | Leaburura: Mahala baserria                                                        | Ingurunea: Lan sektoreak                           |
| 5. Maila          | Maiatzaren 28an      | Ergoiengo Herri Musika Txokora                                                    | Musika: Instrumentuak                              |
| 5. Maila          | Ekainaren 4an        | Herri Gunera: Udaletxea, Eliza, Biblioteka, ...                                   | Donapaleutarrei herria aurkeztu                    |
| 5. Maila          | Ekainaren 8an        | Mendibilko Txarara                                                                | Euskaraz biziko elkarkidetza proiektua gauzatzea   |
| 5. Maila          | Ekainaren 9tik 11ra  | Donapaleu (Behenafarroa)                                                          | Iparraldea ezagutu eta bertakoekin harremanak izan |
| 6. Maila          | Ekainaren 10ean      | Ergoiengo Herri Musika Txokora eta A. Mendizabal eskulturagilearekin elkarrizketa | Musika: Instrumentuak<br>Plastika arloa            |
| 6. Maila          | Ekainaren 14tik 16ra | Arotz-Enea (Etxarri Larraun)                                                      | Ingurumena eta harremanak                          |

| MAILA                 | NOIZ                | NORA                                                      | HELBURUA                                                                                   |
|-----------------------|---------------------|-----------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>DBH I. ZIKLOA</b>  |                     |                                                           |                                                                                            |
| 1a                    | Apirilak 19         | Urkiolak Arraun elkarte                                   | Arrauna / Gorputz hezkuntza<br>Gure herri kirolak landu                                    |
| 1b                    | Apirilak 26         | Urkiolak Arraun elkarte                                   | Arrauna / Gorputz hezkuntza<br>Gure herri kirolak landu                                    |
| 1. Maila              | Maiatzak 6          | Bera                                                      | "Mugaz Gain" izeneko antzerki emanaldiak.<br>Bi obra aurkezkera.                           |
| 2. Maila              | Maiatzak 6          | Iturriotz. Ernioko koba zuloak bisitatzera                | Gorputz hezkuntza/ Gizarte naturarekin bat                                                 |
| 1. eta 2. Maila       | Maiatzak 11         | Kultur Etxera                                             | Pelikula: "Generación robada". etika.                                                      |
| 1. eta 2. Maila       | Apirilak 30         | Andoain                                                   | Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa.<br>46 ikasle idaztera. 12 ikasle kantatzera. |
| 1. Maila              | Ekainak 3           | Ikastolara Anjel Mari Peñagarikano bertsolariaren bisita. | Bertsolaritzaren sustapena                                                                 |
| 2. Maila              | Ekainaren 9tik 11ra | Espejo                                                    | Ikasturte amaierako ibilaldia<br>Kurtso amaiera                                            |
| 1. Maila              | Ekainaren 9tik 11ra | Beire                                                     | Ikasturte amaierako ibilaldia                                                              |
| <b>DBH I. ZIKLOA</b>  |                     |                                                           |                                                                                            |
| 3. Maila              | Ekainaren 3a        | Errenteria                                                | Industria erakusketa ikusi                                                                 |
| 3. Maila              | Ekainaren 9tik 11ra | Gorliz                                                    | Harremanak sendotuz hainbat ekintza egin                                                   |
| 4. Maila              | Ekainaren 3a        | Errenteria                                                | Industria erakusketa ikusi                                                                 |
| Teknologiako ikasleak |                     |                                                           |                                                                                            |
| 4. Maila              | Ekainaren 3a        | Luberri Museora                                           | Oiartzun bailarako geologia aztertu                                                        |
| 4. Maila              | Ekainaren 17a       | Txingudi-Hendaia                                          | D'abbadie Gaztelua ezagutu                                                                 |
| 4. Maila              | Ekainaren 7tik 11ra | Coma-Ruga                                                 | Dbh etapara bukaera ona eman                                                               |





## Erein eta gero...



Kirolari apartak ditugu gure ikasleen artean.

Judo eta Samboko taldeak zilarrezko garai-ikurra jaso zuten. Bakarkako lanetan urrea ere irabazi zuten askok. Hau dena lortzeko lan handia egin dute Julen Idarreta, Enaitz de las Heras, Olatz Etxeberria, Beñat Etxeberria, Lur Mitxelena eta Eneko Huizi ikasleek.

Atletismoan ere badira ikasle saiatuak eta dominen jabe kategori desberdinetan: Maitane Azpeitia, Maitane Toledo eta Odei Mujika.

LH6 mailako ikasleak Oarsoaldean bote-luze txapelketan sailkatu ziren.

Eta dantzariak? Hauek ere gero eta marka handiagoak jartzen ari zaizkigu.

Aurrekularien artean Eñaut Fernandez eta Gexan Mendizabal dira hanka arinenen jabe. Neskaten txapelketan berriz, bikain aritu dira Amaia Ostolaiz, Aia de la Peña eta Izar Aizpuru.

Idazle bikainak ere sortzen ari dira gure irakurzaletasuna bultzatu nahian: Ekiñe Aristizabal, Olatz Mitxelena, Lohitzune Puy, Garazi Azurmendi, Iraia Errandonea, Olaia Susperregi, Jon Del Olmo, Garazi Ansa, Alazne Zipitria, Unai Barrenetxea, Eider Carabias, Aintzane Ado, Eneritz Toledo, Mikel Arbelaitz eta Irati Izagirre.

Bertsolaritza munduan berriz Gipuzkoako Eskolarteko bertso txapelketako txapelduna gure artean izandakoa du: Alaia Martin.

ZORIONAK GUZTIO!!!!

## Denok Uretara!!!

Ikasturtean zehar 4., 3. 2. eta 1. mailako ikasleek igeriketa ikastaroa egin dute.

Maiatzean, igerilekuko saioekin hasi zirela 3 urteko haurrak, astean behin joan ziren. Zertara? Baaaaa... URETAN JOLASTERA ETA GOZATZERA.



We have been making a shopping guide about Oiartzun. We have discovered that Oiartzun is a nice place for everybody and that it has got everything a foreigner needs when he/she comes to our country: Sports shops, a library, chemist's, clothes shops, a big supermarket... There is also a large variety of typical products like cheese, cider, wine, peppers, beans... If you want to have a good time come to Oiartzun! We are waiting for you!

Oiartzuni buruzko denda gida bat egiten aritu gara. Oiartzun edozeinentzako herri atsegina dela eta atzerritarrek bertara etortzen direnean behar duten edozein gauza aurki dezaketela ikasi dugu: kirol dendak, liburutegi bat, farmaziak, arropa dendak, supermerkatu handi bat... Era berean, Oiartzunek bertako produktu tipiko ugari eskeintzen ditu hala nola: gazta, sagardoa, piperrak, babarrunak... Ondo pasa nahi baduzu, zatoz Oiartzuna! Zure zain gaude!







## Deklamazio sarien irabazleen atarian

Eusko Jaurlaritzak, Euskal Herriko ikastetxeentzat urtero antolatzen dituen Deklamazio Sarietan, punta puntan aritu dira seigarren mailako neska-mutikoak: bi gelak aurkezturiko bi lanetatik, batek, finalisten artean egoitea lortu baitu.


Sari hauek ikasleengan irakurketa zuzena bultzatzea dute helburu eta hau bideratzeko bi geletako taldeek Hezkuntza Sailetik bidalitako ezinbesteko irakurketak, hainbat olerki eta eleberriren pasarteak lantzen aritu ziren martxo aldera.

Prestaketa honetan, irakurketaren ahoskera, tonua, erritmoa eta euskalkiak landu ziren. Azkenik talde bakoitzak, zortzi minutuko zinta bat grabatu zuen.

Jakin berri dugu 6A gelako ikasleak, gela guztia errentzat bidai bat irabazteko zorian izan direla. Besterik gabe, ZORIONAK eta ea hurrengo batean zorte pixka bat dugun.

## Ernion Leizeberriko gainan

Azken urte hauetan ohizkoa bihurtu da Ernioko kobari bisita. Eta urtero gozatu egiten dugu lurraren errailetan sarturik: hasieran, ilauntasunak sortzen duen beldurra edo errespetua dugu eta hau gainditu ondoren saguzaharrak, harri bitxiak, ur hotsa.....eta aurten, bereziki, ura leku eta bazter guztietan. Eta aurten ere gozatu lurraren errailetan...





## BERTSOZ BERTSO, HAURREI KANTARI

Hemen ditugun bertsoak gure gelako guraso den Esteban Martiarenak egin ditu. Lehendik ere honen gisako esperientzia egin zuen, duela urte batzuk haur-eskolako irakasle batek eskatuta haurrei zuzendutako bertso sorta luze eta ederra osatu baitzuen.

Aurten esperientzia berregin nahi izan du, baina oraingoan gertutasun handiagorekin, bere seme Peru gurekin baitago Karrikako haur-eskolan. Peru eta bere gelako lagunak izan ditu mintzagai. Bertsoak hauek dira eta denok elkarrekin kanta ditzagun. Mila esker Este.



DOINUA: "Furra, furra"

ESTRIBILOA: "Hau taldea, hau taldea  
Hau da aurten losunek  
Duen taldea"

EKAIN dugu lehena  
Ekain dago fuerte  
gerrik ez du ematen  
goseak den arte  
baina jaten hastean  
ezin tripa bete  
losune patatekin  
ere jango luke.

LUZIA berriz dugu  
imitatzen duna  
guri farra eragiten  
saiazten zaiguna  
bera dugu gelako  
"pailazo" kuttuna  
laster egingo dena  
Porrotxen laguna

IOSUNE dugu oso  
bihurri eta trasto  
beti bazterrak nahasten  
ibiltzen delako  
halere etxeok  
egon lasai asko  
denon artean ongi  
zaintzen dugulako.

Hizketan hasten da eta  
ez du arnasik hartzen  
entzuten duen hura  
du errepikatzen  
EÑAUT berriak  
ari naiz pentsatzen  
laster hasiko dela  
bertsoak kantatzen.

UDANEgatik zion  
losunek lenguan  
"pipermin bat sartu du  
ipurdi barruan"  
beti hara eta hona  
bazkaltzeko orduan  
une berean dago  
guzien onduan.

ARTALDETIK trialarai  
kantari atera  
ta kantari trialarai  
bueltan artaldera  
orain sehaskara goaz  
guztiok batera  
aitatxo ta amatxokin  
amets egitera.

Karrikako plazara  
txangoa "gurdian"  
eta PERU esertzen da  
guzien erdian  
ez da handik mugituko  
ez du nahi agian  
edo karga gehiegi  
dauka ipurdian.

IKER beti aritzen da  
losuni begira  
"putxeritos" eginez  
mimoak desira  
taktika egokia  
dela nabari da  
besotan joatean baita  
nahi duen tokira

KARRIKAKO SEHASKA TALDEA  
2004ko maiatza





## ZER DAGO ZUMAIAN?

Maiatzaren 28an gure lehenengo egun osorako ibilaldia egin genuen, nora eta, Zumaira joan ginen! Zuloagaren etxe museoa ikusi, txalupan ibaian zehar ibili eta bapo bazkaldu ondoren etxera itzuli ginen. Nekatuak baina, primeran pasa genuen!



*Txalupan ibaian zehar*



*Zuloagaren etxeko lorategian*



*eta azkenik, tripa kontutan!*

ERGOINGO, MUSIKA TXOKOAN, HAINBESTE MUSIKA TRESNA IKUSI GENITUEN, IKASTOLARA ETORRI ETA GUREAK EGITEARI EGIN GENIOLA. BAI IKUSTEN ETA BAI EGITEN ASKO GOZATU DUGU.



EH!!! EH!!! Gu ere izan ginela! Begira zein guapa/o gauden.







## Pagoeta natur parkera ibilaldia

Kaixo denoi, gu hirugarren mailako ikasleak gara, zer moduz zaudete?

Hiruhilabete honetan landareen gaia ikasten ari gara eta horregatik joan ginen Aian dagoen Pagoeta natur parkera, maiatzaren 18an.



Ondoren, han dagoen baserri-erakusketara sartu ginen. Barruan maketa handi bat zegoen, eta maketa horretan Orio, Aia eta une horretan gu non geunden erakutsi ziguten. Oreinaren adarrak ere erakutsi zizkiguten.

Eguerdian, parke batera joan ginen bazkaltzera, eta ondoren, jolasten aritu ginen.

Guri, asko gustatu zitzaigun Pagoeta natur parkea, oso polita iruditu zitzaigun eta zuek ere joan zaitezke ikustera. **ANIMA ZAITEZTE!!!**



Pagoetan, lorategi eta zuhaitz mota asko ikusi genuen. Hara iritsi ginenean bertako begiraleak liburuxka bat eman zigun, eta liburuxkan azaltzen ziren zuhaitzak aurkitu behar genituen eta hauen zatien izenak jarri. Hagina, haritza, gerezi ondoa, altza, gaztain ondoa, pagoa... ikusi genituen. Bi urkia mota ikusteko aukera izan genuen, bata Euskal Herrikoa eta bestea amerikarra.




### GU ANIMATU GARA!!!

I. mailakoek joan gara bertara baina guk bertako erleak ezagutu genituen. Han ginela erle erregin bat jaio zen eta Leire izena jarri genion I. mailako Leiren urtebetetzea zelako.







## Kaixo denoi!

Oraingo honetan ipuina lantzen jarraitu dugu 4. mailan. Baina ez genuen ipuin guztia asmatu behar, baizik eta, bukaera. Irakasleak denoi ipuin baten hasera irakurri ondoren, binaka jarrita, ipuinari jarraipena eman behar genion.

Eta horrelako lanketa egin dugu bai euskara arloan baita gaztelania arloan ere. Irakur itzazue mailan egindako batzuk, ea gustatzen zaizkizuen.

### Aitona eta Miren Feli

Aspaldian, herri txiki batean, Miren Feli izeneko neska gazte bat bizi zen.

Behin bere aitona bisitatzen joan zen.

Aitonak eskerrak eman zion bisitatzeagatik baina konturatu gabe berandu egin zitzaion. Miren Felik esan zion berandu iristen bazen ama kezkatu egingo zela eta korrika abiatu zen ilundu baino lehen.

Bidea nahiko luzea zenez, gauak harrapatu zuen.

Pixka bat ikaraturik zihoan alboetara begiratu. Basotik sartu behar izan zuen eta bide gurutzera iristerakoan sorgin batek egindako irrintzia entzun zuen.

Orduan Miren Feli ikaratu egin zen eta korrika alde egin zuen.

#### Lehenengo bukaera

Miren Feli sasi artetik joan zen. Halako batean zerbait entzun zuen, sorgin bat zen. Sorgin horrek irrintzi handi bat egin zuen eta sorgin gehiago etorri ziren eta denen ahalmenen bidez igel higuigarri eta zikin bihurtu zuten.

Handik bi egunetara errege zikin bat iritsi zen herri-  
ra. Miren Feliren amak galdetu zion erregeari ea begiratu zezakeen bere alaba non zegoen.

Erregea basotik zihoanean igel zikin eta higuigarri bat ikusi zuen. Muxu eman eta neska bihurtu zen. Geroago ezkondu egin ziren. Ama eta aitona aberats egin ziren.

Miren Feli eta erregea ondoko etxean jarri ziren bizitzen, eta handik aurrera aitona eta ama beti bisitatzen joaten ziren.

#### Bigarren bukaera

Itzal bat ikusi zuen eta "Nor zara?" esan zuen Miren Felik. Eta sorginak erantzun zion "Mendialdeko sorgina naaiz eta zu eltzean sartzen etorri naaiz".

Eta orduan sorginak bere kobazulora eraman zuen.

Goiza zen jadanik eta Miren Feli oso izutua zegoen. Sorgina osagai bila joan zen bitartean Miren Felik erratza hartu eta hegan alde egin zuen etxera.

Eta etxera heldu zenean dena azaldu zion amari.

#### Hirugarren bukaera

Sorgina zuhaitz batean zegoen eta Miren Feli harrapatu eta soka batez lotu zuen. Ondoren, sorginak bere etxera eraman zuen erratzean. Bere etxean eltze handi bat zegoen. Miren Feli afaritarako nahi zuen sorginak eta eltze sarta zuen osagaiekin batera. Orduan esan zuen:

- Oloia, gatzia eta piper min pixka bat- koilarea biratzen ari zen bitartean.

Horrela ari zen bitartean basajaun bat agertu zen eta sorginen batzar bat zegoela esan zion, bere sorgin lagun batek **igelak nola printze bihurtu** asmatu zuen eta sorginak ez zuen galdu nahi.

Horregatik basajaunari eskatu zion Miren Feli zaintzeko, baina sorgina bere erratzean joan bezain laster basajauna lo gelditu zen.

Sorginak laban bat zeukan osagaiak mozteko ondoko mahaian eta nola basajauna lotan zegoen, Miren Felik, ez dakigu nola, labana hartzen iritsi zen. Soka askatu, eltzetik irten eta ihes egiten hasi zen. Baina orduan basajauna esnatu egin zen eta Miren Feliren atzetik joan zen.

Miren Feli basotik irten zen eta, basajauna han gelditu zen, maitagarriak, galtzagorriak, herensugeak, sorginak, basajaunak eta beste zenbait izakik ezin zutelako basotik atera, eta Miren Feli, etxera itzuli zen.

Horrez geroztik Miren Feli ilundu baino lehenago etxeratzen da.





## El lobo feroz

Todo empezó hace muchos años, cuando los tres cerditos sólo eran tres cerditos sonrosados y cuando el lobo feroz era un lobo chiquitín al que todos llamaban Ferocín. En aquellos días Ferocín no era un lobo malvado, era sólo un lobo travieso.

Aquel verano, la familia cerdo y la familia lobo fueron a la misma playa.

El primer día Ferocín se acercó a los tres cerditos y...

### Primer final

Vio que los cerditos habían hecho tres castillos, cada cerdito estaba en la cima de su castillo. Al lado de la bandera del castillo.

Ferocín tenía una pala muy grande para destruir los castillos.

Se dirigió al castillo del cerdito más joven. El castillo era de arena blanda, así que cogió su pala con intención de tirar abajo el castillo y empezó a quitar la arena del castillo hasta que lo tiró.

El cerdito fue al castillo de su hermano que era de arena dura, pero a Ferocín la daba igual y empezó a quitar la arena otra vez hasta que lo rompió y los dos hermanos se fueron al castillo del hermano mayor que estaba hecho con piedras recogidas en la playa.

Ferocín cogió su pala y empezó a quitar las piedras pero las piedras son piedras y no son arena. Así que no pudo quitar las piedras con su pala de plástico y se rindió pidiendo a ver si podía jugar con ellos medio llorando.

Los cerditos le dijeron que sí e hicieron un castillo todos juntos.

### Segundo final

El lobo rugió y los cerdos salieron corriendo.

Entonces vinieron los padres de los tres cerditos y, también, los padres de Ferocín y empezaron a discutir.

Ahí se acabaron las amistades entre los cerdos y los lobos.

## IBARGAIN PARKEA

Naturaren sekretuak asmatu nahian I. mailakoak Ibargain parkera joan ziren.  
Bertako zuhaitzak, zuhaixkak, loreak, animaliak... aztertu ondoren hau pentsatzen dute:

"Zuhaixkak gustatu zaizkit eta zozoaren habia ere bai"

"Zozoaren habia, txikori belarra, bitxiloreak, zuhaitzak eta bitxo bola daude parkean."

"Labirintoa ematen du bide asko dituelako"

"Parkeak ez dauka arriskurik, animaliak lotuak daudelako"

"Asko gustatzen zait Ibargaingo parkea loreak dituelako eta ondo gozatzen delako eguzkiarekin"

"Asko gustatzen zait oso lore politak dituelako eta lasaitasun handia dagoelako"

"Ibargaingo parkea Argitxoren kriseiluarekin, euskaldun bihurtuko dugu"

"Txabola bila ibili naiz, labirintoa ematen du, kolore asko daude eta hango loreak asko gustatu zaizkit"



Ahateen kua kua  
txorien txio txioa  
eta igelen kroa kroa  
entzuten  
menditik bera noa.  
Menditik ere ura doa  
ibaitik itsasora  
gu hondartzara goaz  
uretan goatzera.

I. mailako ikasleak



# IKASTOLA EGUNA 2004






# IKASTOLA EGUNA 2004









# UDAL AKORDIOAREN ALDE





# IKASTOLA EGUNA 2004





## 6.mailako ikasleak BOTE LUZE Gipuzkoako FINALEAN!!!



Aurreko larunbatean ospatu zen Donostiako konstituzio plazan Gipuzkoako ikaspilotak antolaturiko bote luze finala. Bailarako sailkapenean bigarren postuan geratu ondoren, finalerako txartela eskuratu zuten Haurtzaro ikastolako 6.mailako neska mutikoek. Lehian puntan puntan aritu ziren Gipuzkoako beste 17 ikastetxerekin batera.

Bi taldetan banaturik launa partidu jokatu zituzten ikasleek eta, nahiz eta erdiak irabazi, azkeneko saioan ez ziren klasifikatu.

Ikaspilotak antolaturiko topaketaren helburua euskal pilotak duen jokamolderik zaharrena berreskuratzea da, gaur egun, Zuberoan izan ezik, desagertzeaz baitago.

Hau dela eta, joko ezezaguna da inguru hauetan eta harrigarria egiten da talde joko bat ikustea inguruko frontoietan. Izan ere, bertan "eskasa" izeneko murrak, bi esparru bereizten ditu, eta alde banatan, elkarri aurrez-aurre begira, bosna lagun aritzen dira jokoan. Bi hilabeteko lanaren ondoren, bote-luzeko arauak eta kontzeptuak barneratu dituzte ikasleek; kintzea, xixa, botarria...

Azken finean garrantzia duena jokoa bera baino, inguruko 6.mailako neska-mutikoak giro on batean elkartzea izan da, beraien arteko harremanak indartuz eta talde lana bultzatuz.

Bestetik, antzinatasun ukaezin eta neurtezina duen joko honek bizirik nahi dugu, gurea izan zelako, gurea dela-ko eta gurekin bizirik nahi dugulako.

**Ahaztu gabe, ZORIONAK 6. MAILAKO NESKA-MUTIKOEI!!!**

## Teknologoak lanean

Hau nekea! Ikastolako eskailerak igo eta jaitsi ibili behar dugu egun guztian. Honez gain, elbarrituentzako ere aproposa da, ikastolako muga arkitektonikoak ekiditeko, Beraz, guztientzat egokia izan daitekeelakoan, hona hemen gure proposamena:

Lasai eserita jarri eta botoia sakatuz  
ibili zaitezke, nekatu gabe.  
Zer iruditzen zaizu?




Argazkiko proiektuaren egileak:  
Nagore Jimenez  
Idoia Hernandez  
Xabier Alfaro

Ikastolan igogailua jartzeko asmoa dagoela?  
Hona hemen gure proposamena:  
Sartu barrura eta sakatu botoia.



Dbh4ko teknologia taldea



Argazkiko proiektuaren egileak:  
Jon del Olmo  
Benat Vicente  
Julen Arriaran





## Haurtzaro ikastolako ikasleak literatur kritiko.

Elkar argitaletxeak hiru liburu berri argitaratu ditu aste honetan. Hiru liburuak gazte literaturaren barruan kokatuko genituzke, eta hirurak Taupadak sail berrian eman dituzte argitara.

Itzulpenak dira hiru liburu berriak eta joan den ostira-lean, martxoaren 27an, aurkeztu zituzten Donostan.

Liburu hauen aurkezpena benetan berria eta berezia izan zen. Izan ere, ez ziren liburuen egileak edo itzul-tzaileak aritu aurkezpen lanetan. Haurtzaro Ikastolako DBH 3.mailako hiru ikaslek egin zituzten aurkezpen lanak. Olatz Mitxelena, Garazi Ansa eta Ane Badiola izan ziren Taupada saileko hiru liburu berrien aurkezle. Haurtzaroko ikasleak aitzindari, beraz, literatur lan hauetan.

Haurtzaroko hiru gaztetxo iraurle eta literaturzaleak ez ziren liburuak aurkeztera mugatu. Liburuei buruzko beren iritzia kritiko zorrotz eta sakona eman zuten Donostiako prentsaurrekoan.

Olatz Mitxelenak "aire beltza" liburuak aurkeztu zuen hedabideen aurrean. **Agustin Fernandez Paz**-en liburuak edozein irakurlerentzat egokia zela esan zuen. Fikzioa eta errealitatea oso ongi uztartzen dituelako, tarte-an maitasun historia bat ere badagoelako, erraz irakur

daitekeelako eta baliabide literario ugariz eta aberatsez hornitua dagoelako. Beraz, beldurraren generoaren zale direnek gustura irakurriko dutela liburu hau.

Garazi Ansak **Marliese Arold**-en "maitasuna besterik ez" liburuaren berri eman zuen komunikabideen aurrean. Lesbianen arteko maitasun historia polit bat zela esan zuen. Historia bi ikuspuntutatik tratatzen duela liburuak. Batetik protagonisten aldetik, eta bestetik inguruko jendearen ikuspuntutik. Historia ederra, erakargarria, eta nerabeentzako pare-pareko kontaketa.

Ane Badiolak **Gloria Llobet**-en "zuga pentsatuko dut" liburuak aztertu zuen. Nerabeen arteko maitasun historia gozo eta polita kontatzen zuela adierazi zuen. Irakurterraza, oso originala eta sinesgarria zela esan zuen. Hiru kontalarik narratzen duten historiak intriga sortzen duela hasieratik eta gazteentzako oso historia erakargarria eta arrakastatsua izan liteela argitu zuen.

Benetan lan ederra hiru gaztetxo hauek eginikoa. Haurtzaro ikastolan serio eta fuere lantzen dute irakurzaletasuna eta literatura. Elkar Argitaletxeak lan honetarako Haurtzaroko ikasleengana jo izana ez da kasualitate hutsa. Laster ditugu gazte hauek liburuak argitaratzen. Hala izan bedi!

## Oñatibia t'ar Juanito

Juanito edo Jon, Jon edo Juanito. Modu batera edo bestera baina, pertsona bera.

Oiartzuarra; txistularia; Lartaun abesbatzako sortzaile eta zuzendaria; San Juan dantza, Donibane konposizio sarituaren egilea,....

Bere omenez hitz hauek, eta musika munduan egin zuen lana eskertu nahian, OMENALDI beroa, goxoa eta bihotz-bihotzekoa egin nahi diogu HAURTZARO IKASTOLAKO ikasle, irakasle, guraso eta langileok.


Omenaldi honetan Oiartzungo txistulari taldeak, Lartaun abesbatzak, Ikastolako dantza taldeak parte hartzeaz gain, ikastolako L.Hko ikasleek, Juanito Oñatibia sortutako 4 kanta abestuko dute. 4 kantu hauetatik 3, Juanito Oñatibia sortutako SOLFEO METODOTik aukeratu ditugu. Ikasle guztiek ikasi dituzte 4 kanta horiek Ekainaren 3an hasiak gara buru belarri saiotan eta larunbatan ikastolan bertan entsaiatzen.

Zorionekoak gara, ikastolako haurrak, Juanito Oñatibia ezagutu dugulako, berak hain berea zuen komunikabidea dela medio; MUSIKA alegia.

Animatu zaitetz! Zatoz, ekainaren 19an, Elorsoro kiroldegira, gure Juanitoren omenaldiaren parte izatera.







## ARRAUNEAN URUMEAN

### Lehen pausoa:

Ergometroaren bidez arraunerako lehen posizioak, lehen kontaktua egin dugu. Ikastolan, arraun federazioak utzita, hilabete batez izan ditugu bi ergometro eta hauekin zenbait ariketa egiten aritu gara.



### Bigarren pausoa




Arraun federaziokoa den Unai Elizasu Urkiko arraunlaria, arraun munduari buruz aritu zitzaigun: modalitateak, barku motak,....

### Hirugarren pausoa:

Urkiko instalazioetan arraunean.

LEHENDABIZI BERRIRO ERGOMETROA

### ONDOREN FOSORA



ETA AZKENEAN... URETARA





## Ikasleak bero galeren bila

Haurtzaro ikastolako ikasle talde bat gara eta lerro hauen bitartez kontatzen dugu 2003-2004 ikas-turtean, zientzi tailerran egin genuen lan bat.

Gure helburu nagusia zen, leihoak irekitzean, berotasuna mantentzeko kalefakzioak lan gehiago egin behar duela ohartaraztea. Horregatik, berotasuna mantentzeko gasolio gehiago erretzen da eta, noski, zenbat eta erregai gehiago erre gero eta kutsadura handiagoa.

Beste helburu bat da ikastolako zuzendariari, leihoak egoera onean egon behar dutela ohartaraztea, hau da, aire fugarik ez dutela egon behar kontsumo egokia egin nahi badugu.

### **ZER EGIN DUGU ETA NOLA?**

Ikastolako geletan ikerketa lan bat egin genuen. Ikerketa honen helburua zera zen: leihoetatik haize korronteak sartzen zen ala ez jakitea eta sartzen bazen nondik. Esperientziarako, luma bat eta hari zati

bat erabili genituen. Horretarako hari zati batetik luma zintzilikatu genuen eta atepean eta leiho ondoetara hurbildu ginen. Luma mugitzen bazen aire korrontea bazegoela ondorioztatzen genuen.

Datuak jasotzeko taula antzeko bat prestatu genuen ikastolako gelak bisitatu baino lehen. Taula horretan gela, maila eta bertako irakasle arduradunaren izena apuntatzen genituen. Honekin batera ikusitako isolamendu akatsak adierazten genituen.

### **ONDORIOAK:**

Ikerketa bukatzerakoan ondorio hauetara iritsi ginen: zenbait geletako leihoetan aire asko irten eta sartzen zela. Hau horrela izanik, azpimarratzen genuen gasolioaren kontsumoa areagotzen zela eta horren ondorioz, ingurumena gehiago kutsatuz.

Baita ere, ikusi genuen hainbat atek ere bazituztela aire korronteak. Beraz, leihoekin gertatzen zena, atekin berdin-berdin errepikatzen ahal zela konstatatu genuen.

Bukatzeko, zientzi tailerran egin genuen lanen berri eman genion ikastolako zuzendariari. Egin genuen ikerketa eta honen ondorioak jasotzen dituen informe bat ere entregatu genion.

### **IRTENBIDEAK:**

Hauek dira gure zuzendariari proposatu genizkion irtenbideak gasolioaren kontsumoa gutxitzeko eta airearen kutsaduran ez laguntzeko.

Leiho batzuk aldatu, beste batzuk konpondu, atek aldatu eta gela bakoitzeko sarreran dauden bi atek elkartu. Honekin geletako beroa ez litzateke hainbeste galduko, kalefakzioan gutxiago gastatuko genuke eta ondorio kutsakorrak saihestu egingo genituzke.



HAURTZARO IKASTOLA  
DBHI ZIENTZIA TAILERRA TALDEA.





## KOSME LIZASO

Kosme Lizaso baserritar eta bertsolaria da



### **Noiz, nola eta zergatik hasi zinen bertsotan?**

Ni bertsotan hasi nintzen 16-17 bat urte nituela, hasi nintzen plazan.

Zergatik? Gustatu egiten zitzaidan eta nire moduko bat edo beste baziren garai hartan eta elkarrekin animatu eta horregatik bertsotan hasi eta geroztik oraintxe arte. Orain ere ibiltzen naiz baina gutxiago.

### **Askok aldatu al da bertsolaritza lehenetik hona?**

Bertsolaritza aldatu? Bai, bai, asko. Orain gazteak gu orduan aritzen ginen bezala ez dira aritzen. Orain

ikastolan ikasita aritzen dira oraingo gazteak. Ikastolan ikasitakoak nabariak dira eta gu berriz ikastolan ibili gabeak, bestelako eran aritzen dira.

### **Noiz izan zen zure lehenengo aldia plazan bertsotan?**

Erreterian, Erreterriako goiko kalean, San Agustinetan. 17 urte nituela hantxe ilunabar batean altabozik eta ezer gabe bertsotan aritu ginen. Balkoi batetik nik kantatu eta beste batetik besteak erantzun, Pello Zabaleta difuntua zen.





### **Zein izan zen zure bertsolari gustukoena?**

Nire bertsolari lagun gustukoak asko izan dira. Horrela bat edo beste berezi behar izan ezkeru Uztapide difuntua, Lazkao Txiki difuntua, hauek biak oso argiak, zorrotzak eta onak ziren. Baserri ere bertsolari handia zen, Salvador difuntua ere bai, Joxe Agirre ere bai, Mitxelena difuntua ere bai. Onak horrela esateko, egun batean bat zen grazi gehiago egiten zuena eta hurrengoan bestea.

### **Plazan gustura norekin kantatzen zenuen?**

Gustura kantatzen nuena, Lazkao Txiki difuntua. Garmendiarekin ere gustura ibiltzen naiz eta lehen esan duda Uztapide difuntorekin ere gustura ibili izan nintzen. Horrela bereisteko, ez dut inor baina gustukoak dozena erdi batekin behintzat oso gustura ibili izan nintzen.

### **Eta idatziko bertso gustukoena?**

Idatzitako bertso asko irakurritakoa naiz ni, nire garaian. Donostiako alde zaharrean bici zen Manuel Matxain difuntua bertso jartzaile ona zen, Salvador difuntua ere bai. Denak dakigu Salvador zena ze mai-latako bertso jartzailea zen. Jose Mari Arrieta Hernanika, Manuel Matxain, Inozentzio Olea, azken hau oraindik Legazpin bizi da, hauek guztiak oso bertso jartzaile onak ziren.

Oso bertsoaldi onak jarriak ziren horiek guztiak. Bertso on asko irakurritakoa naiz ni eta onena orain zein den ezin nezake berezi.

### **Gehien gustatzen zaizun doinua zein da?**

Gehien gustatzen zaidan doinua hamarreko handia da. Beno, gustuko doinu asko ditut baina hamarreko nagusia asko gustatzen zait lehen esan dudana bezala. Iparragirreraren doinua. Doinu on asko daude. Gai sakonetarako hamarreko nagusi dut gustukoena.

### **Botako al zeniguke bertso bat?**

Gaia: Gu ona etorri gara elkarriketa zuri egitera.

Zaletasuna sortze hori da

Alaia ta legezkoa

Bi gazte dauzkat eskatu naute

Laguntza eta eskua

Oso pozikan eman diotet

Hizketaren baiezkua

Eskola gauza ona da baina

Hobea da berezkua

### **Zer duzu nahiago futbola edo pilota?**

Futbola gustatzen zait, baina, pilota hamar aldiz gehiago.

### **Eta musika alaia ala herrikoia?**

Ni musika kontuan oso motza naiz. Ezagutu izan duguna musika herrikoia izan da eta oso pozik ibili izan gara.

### **Zer duzu nahiago prosa ala poesia?**

Biak dira oso politak. Ondo egindako poesia oso gauza polita da eta bestea ere bai, biak dira oso politak.

Beno bada, gaurkoz bukatu dugu eta eskerririk asko.

*Eneko Huizi – Mikel Pérez*





# XABI

# ALONSO

How tall is he?  
 What is his brother's name?  
 How old is he?  
 What are his hobbies?  
 Where does he live?  
 How many kilos does he weigh?

Xabi Alonso was born on the 25th November 1981 in Tolosa (Gipuzkoa). His full name is Xabier Alonso. He is tall, 1 metre 83. He weighs 75 kilos. His hair is light brown and his eyes are brown.

Alonso plays football for Real Sociedad and a lot of people thought he should have played the world cup. He scored 3 goals in the previous season.

Alonso's hobbies are playing football and watching football on TV. His car is a black Audi A3. He has got a brother. His name is Mikel Alonso. He is a football player in Real Sociedad too.



Made by: Haizeg  
 S. S. S.






# Laburpen tentatzailea

*Idazlea: Mikel Garmendia*

*Argitaletxea: ZUBIA*




Koldo eta Itziar Landetara joaten dira gurasoekin udako oporrak pasatzera. Landetan Belle izeneko neska ezagutzen dute. Sekretu bat kontatzen die bi anaien: sirena bat dela. Koldo eta Itziar ahal dutena egiten dute Belleri Georges kapitainaren sareetatik irteteko. Belle, ez zen Landetan jaio Itsaso Gorrian baizik, umetan amak eraman Alexandra izeneko andre batengana jakiteko zer gaixotasun zeukan, begietako tristura. Bellek, Koldo eta Itziarren Ikasketak eta bizitza aldatuko ditu.

Nahi baduzu liburu honen bukaera jakin hoberena irakurtzea duzu. Animatu zaitez.

Liburu hau ezberdina iruditu zait eta aldi berean irakurtzea asko gustatu zait.

## IRAKURRI!





Margotu gorriz goiko jertseak.

Margotu urdinez eskuineko galtzak.

Margotu berdez beheko jertseak.

Margotu horiz ezkerreko galtzak.

Margotu aurpegi, hanka eta esku guztiak arrosaz.






# ZENBAKI KATEATUAK

|                 |                 |                 |       |                 |                 |                 |
|-----------------|-----------------|-----------------|-------|-----------------|-----------------|-----------------|
| <b>9 digitu</b> | 6730945         | 492750          | 29201 | 87196           | 7496            | 580             |
| 406137524       | 7194256         | 508647          | 34729 | 93018           | 8025            | 618             |
| 719453018       | 8374259         | 609275          | 37921 | 93068           | 8192            | 672             |
| 946375012       | 9018439         | 714853          | 41073 | <b>4 digitu</b> | 9372            | 827             |
| <b>7 digitu</b> | 9806127         | 801759          | 47535 | 1304            | <b>3 digitu</b> | <del>875</del>  |
| 1593671         | <b>6 digitu</b> | 937526          | 50169 | 1856            | 041             | 970             |
| 1640753         | 129587          | <b>5 digitu</b> | 51353 | 2693            | 108             | <b>2 digitu</b> |
| 2175394         | 168902          | 10929           | 60482 | 3810            | 130             | 53              |
| 2547698         | 230941          | 13439           | 73594 | 5174            | 186             | 55              |
| 3804672         | 305762          | 14302           | 75132 | 5294            | 351             | 72              |
| 4091419         | 310684          | 20676           | 80193 | 5615            | 406             | 95              |
| 5842790         | 452138          | 28693           | 83606 | 7234            | 525             |                 |

Diagraman koka itzazu honako zenbaki hauek





# MALERREKA

Bidasoan aurki dezakegun gorri-berde bailara



**Z**ortzi herrik osatzen dute bailara hau: Doneztebe, Zubietta, Ituren, Elgorriaga, Urrotz, Oitz, Donamaria eta Gaztelu. Sunbilla, nahiz eta aparte xamar geratu, bailaran eta bere historian partaide izan da.

Bailaran gauza asko ikusi eta egin daitezke.

**Mendia:** Mendaurreko mendirik altuena (1136m). Gailurrean 1692an eraikitako Trinitateko basiliza aurkitzen da eta bertatik Baztan, Bertizarana-Malerreka eta Bortziria bailarak ikus genitzake.


Iturengo Aurtiz auzotik igoz gero bidean trikuharriak ikusiko ditugu.

**Trikuharriak:** Mendaurreko trikuharriez gain, Etxekogaiñakoa Donamaria ondoan; Larraintzarekoa eta Pixortar Urrotzen. Eta Zubietatik joanez gero, Eratsun eta Iruñarriko menhiretara iritsiko gara.

**Urtegiak:** Urrotzetik Leurtzako urtegiara helduko gara. Urtegi hauek pagoz inguratuak daude eta mahaiak, aulkiak eta sulekuak aurkituko ditugu egun pasa eder bat egiteko. Osteralariek Bidasoa ondotik mehategietako trenaren bidea aurkituko dute, Doneztebetik Sunbillara doana (7 km).

**Festak:** Donezteben ekainaren 29an, Iturenen uztailaren 2º edo 3º aste bukaeran, Elgorriagan uztailaren 25ean, eta abuztuan Gaztelun 4an, Sunbilla 11ean, Donamaria eta Zubietan 15ean. Irailean Oitzen 8an eta Urrotzen 29an.

Festetan guante /laxoa jolasa ikusteko aukera izango dugu. Guante/laxoako Baztan-Erreka lehiaketa ospatzen da apirila-abuztu bitartean Oitz eta Donestebeko plazetan.



## Nola iritsi

Iruñea edo Donostiatik N-121-A tik Doneztebe edo Sunbillaraino. Beste bide bat, oso gomendagarria, NA-170. Honek Leitza eta Malerreka lotzen ditu.

## Informazioa

Bertizeko turismo bulegoa: 948 592386 edo Bertizeko konsorzioa: 948 592323





# kutxa

gizarte ekintza



## "la Caixa"

"Oiertzuarren  
zerbitzura gaude"

Mendiburu kalea 2 • ☎ 943 49 47 19



## CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXA



### ETXE ONENAK, S.A.

*Bizitegi Sustapena*

MENDIBIL BERRI kalitate handiko etxeak eraikitzen

Plaza de Guipúzcoa 2-3º dcha. • 20004 Donostia • ☎ 943 42 95 21 • Fax 943 43 02 19



## BIOK ETXEGINTZA S.L.

Karaitza etxea • Garmendi bidea 3 • 20180 OIARTZUN  
☎ 943 49 25 01 • Fax 943 49 25 01

construcciones

## ARABOLAZA S.L.

*Berriztatze lanak*

Borrokazelaieta bidea, 14 • 20180 OIARTZUN  
☎ 943 491 365 • Postakutxa 16 • Fax 943 493 772



## Hotel LINTZIRIN s.a.



☎ 943 49 20 00 • Fax 943 49 25 04

CTRA. MADRID - IRUN Km. 469 • e-mail: lintziri@adegi.es  
OIARTZUN - GIPUZKOA



## TAJO

### Industrias Tajo, S. Coop.



MONDRAGON  
COMPONENTES

# NIESSEN

ABB Niessen, S.A.

Polígono de Aranguren s/n • 20180 OIARTZUN  
☎ 943 260 101 • Fax 943 260 250

## Alcampo

OIARTZUN

Zure Alcampo, egunero hobetuz



## AMENABAR

AENOR

# ER

Empresa  
Registrada

ER-424/2/96

## SEAT

## Ederki, s.l.

Ihurrita Bidea 13 - 6. lokala • 20180 OIARTZUN • ☎ 943 49 16 41



## OIARTZUN LANTEGIAK, S.L.

Konponketak, Erakusketa, Salmetak eta Karrozeria

Ihurrita Bidea 13 - 1. lokala • 20180 OIARTZUN • ☎ eta faxa: 943 49 18 48 - 943 49 41 36



## Easo Motor

### FordFocus



Salmenta + Tailerra + Txapatan + eskaintza hoberenak

Lintzirin Poligonoa, 10 • 20180 OIARTZUN  
☎ 943 26 04 26 - 943 26 03 91

## Carrefour



## OIARTZUN

## MERKATARITZA ZENTRUA